

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Anfas elkarteko ordezkaritza hartu du, entitatearen 50. urteurrenean

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzen dien elkarteak 1999an Nafarroako Urrezko Domina jaso zuen

Martes, 03 de mayo de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak adimen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzen dien Nafarroako Anfas elkarteko ordezkaritza zabala hartu du gaur goizean Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan, entitatearen 50. urteurrena dela eta. Ordezkaritzaren buru Uxue Zulet Jurío lehendakaria izan da. Sanz Lehendakariaren alboan María Isabel García Malo Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria egon da.

[Anfas](#) elkartea Iruñean sortu zen 1961eko maiatzaren 28an, eta 1962ko urtarrilaren 2an onetsi zituen estatutuak. 1999an Nafarroako Gobernuak Urrezko Domina eman zion berrogei urteko ibilbidearengatik. ANFAS elkartearen eginkizuna Nafarroan adimen-desgaitasuna duten pertsonen bizikaltatea, garapen pertsonala eta gizarteko parte-hartzea hobetzea da.

Gaur egun, Elkartea 2.600 bazkidek osatzen dute. 1.000 bazkide inguru familiakoak dira, eta gainerakoak bazkide osoak. 60 pertsona baino gehiago kontratatuta ditu eta aldi baterako kontratuak egiten dira arnasa hartzeko, oporretako eta udako aisia programetarako. Horrez gain, 500 boluntariok entitatearen helburuak betetzen laguntzen



Sanz Lehendakariak ANFAS elkartea hartu du, entitatearen 50. urteurrenean.



Sanz Lehendakariak Uxue Zulet Anfas elkarteko lehendakariari oroigarria eman dio entitatearen 50. urteurrenean.

dute.

Desgaitasuna duten pertsonentzako eta horien familientzako programa eta zerbitzuen barruan, hurrengoak sartzen dira: arreta goiztiarra, oporrak, psikomotrizitatea eta musikoterapia, kirolak, informatika, etxebizitza eta bizitza autonomorako trebetasunak. Besteak beste, elkarteak Tasubinsa enpresaren titularra da. Enpresa 1990ean sortu zen eta industria-azpikontratazioan aritzen da hainbat arlotan, esaterako plastikoen injekzioa eta apainketa, muntaketa elektronikoak eta elektrikoak, muntaketak automoziorako eta kableak, eta eraikinak eta azpiegiturak kontserbatzea eta gune berdeak mantentzea. Horren bidez, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako enplegua sortzen da.

Sanz Lehendakariak hitzaldian esan duenez, "50. urteurrena ekonomiari dagokionez gaur egungo egoera zailean ospatzea pozgarria da, jarduera hau merkatuaren funtzionamendu-erregelez kanpo garatzen baita eta gizarteak gehien behar dutenekin duen konpromiso irmoa erakusten baitu. Esparru guztietako zailtasunak eta aurrekontu-murrizketak gorabehera, Nafarroako Gobernuak desgaitasuna duten pertsonak artatzeko eta laneratzeko jarduera hauetarako zuzkidura ekonomikoei eutsi die eta kasu batzuetan zuzkidurak handitu ditu".

2006 eta 2011. urteen bitartean, ANFASek Nafarroako Gobernutik 1,1 milioi euro jaso ditu. Kopuru horretatik zenbatekorik garrantzitsuena, 994.793 eurokoa, 2006 eta 2007 ekitaldien artean gauzatu zen Tuterako Nuestra Señora de Lourdes zentroa zaharberritzeko. Zentro horretan desgaitasuna duten pertsonen arreta espezializatua eskaintzen zaie. 2009an, Nafarroako Gobernuak 95.000 euroko diru-laguntza eman zuen elkarteak Lizarran, Tuteran, Tafallan eta Zangozan dituen zentroak zaharberritzeko.